

ILUNTZEAN

Maixa ta Ixiar euskal musika taldea da, **Maixa Lizarribarrek** (ahotsa eta **trikitia**) eta **Ixiar Orejak** (ahotsa eta panderoa) osatua. Biek zerikusi nabarmena izan zuten soinu txikia **1990eko hamarkadan** berriz gora eraman zuen haize berriarekin. **Tapia eta Leturia**, **Gozategi** eta **Alaitz eta Mainerrekin** batera, trikitia berreskuratu zuten herrietako plazetarako. Maixa gaur egun, **AMAK TALDEKO** partaidea da. Eta Amak Xabi Solanorekin(Esne Beltza) elkarlanean ari da.



Ilargia uretan da
itsas arrain ondora
uraren hozkirriaren zirrara
hondar alboan.

Iluntzean uraren
errainu baten
ene maite jolasean
olatu artean.

Haizeak du itsasoa
kresalak malkoa,
maite zure hementxe naukazu
goiztiarrei begira.